



# HISTORIAREN ETA EUSKAL HERRIKO NAZIO-HISTORIAREN IRAKASKUNTZA EUSKAL CURRICULUMEAN

**Alizia Stürtze (Historialaria, Gaiak argitaletzeko kidea)**

Nazioa ez da berez betiko existitzen den zerbait, egiten joaten den, prozesu batean dagoen zerbait baizik. Euskal Herria nazio bat da soziologikoki, baina Estatu-nazio bihurtu nahi duen nazioa. Horretarako, besteak beste, bere historia eraiki behar du. Nazio-(berr)eraikuntzan gauden une honetan, historia irakastea/ikastea/ulertzea/egitea/berrirakurtzea ezinbesteko tresna da. Izan ere, azken 20 urteetan eta zenbait interes politiko-ekonomiko direla bide, ikastoletan (publiko eta pribatuetan) Euskal Herriko historia irakasteari utzi egin diogu, irakasten denean Espainiakoaren edo Frantziakoaren eranskin gisa baino ez da irakasten eta, gainera, haren gainean dagoen zentsura/autozentsura nabarmena da: politikoki zuzena den historia bakarrik egin eta irakats daiteke, ahaltsuenaren historia. Egungo ikasleek ez dakite Nafarroa su eta gar konkiskatu zutela, Karlistaldietan Bilboko herri xehea karlista izan zela, euskara hizkuntza kultu bihurtzeko ahaleginak jauntxoek zapuztu zituztela klase-interesek eraginda...

Egoera kezkatzeko modukoa da, eta iraulketa osoa eskatzen du; erabaki politikoen aldetik nagusiki baina, halaber, herri-mailatik exiji daitezkeen neurrien aldetik ere, hala horren inguruan irakaslearen ezagutzen alde egiteko (azken finean, oro har kolonizatzaile diren unibertsitateetan heziak dira), nola materialen sorrera askea eta zentsurarik gabea bultzatzeko eta material horien banaketa ez-monopolikoaren alde egiteko. Bestalde, kontuan hartu behar da eskolak (eta irakasleek), gaur egun, betetzen duen zeregin murrizta. Hori dela eta, euskal historiak eta euskal kulturaz oro har, gizarte-aldaketaz eta euskal kultura garatzeaz arduratzen garen euskaldunok bide berriak jorratu behar ditugu eta eztabaidarako eta elkartrukerako espazio berriak eta askatzaileak sortu.

Esaldi batzuen bidez, saiatuko naiz agertzen historiak, oro har, eta euskal historiak zehatzago, niretzat euskal irakaskuntzarako eta euskal curriculumerako duen interesa eta eduki beharko lituzkeen elementuak, euskal herritar/europar hiritar kritiko eta helduak ustez hezi nahi ditugun neurrian behinik behin. Hara esaldiok eta horien inguruko iruzkin motzak:

- Historiaren irakaskuntza eta hedapena kontzientzia kolektiboaren sorrerarako tresna eta abertzaletasunaren elikagai direla oso garbi agertzen dute Espainiako eta Frantziako Estatuaren historialariek eta hezkuntza-politikek: *“Ezinbestekoa da Espainiaren historia irakastea zentroetan; izan ere, historiaren bidez eraikitzen da hiritar pentsamendua, nortasun soziopolitikoa”* dio Garcia de Cortazar historialariak. Eta Antonio Elorzak: *“Zentzugabea da Euskal Herriaren historia irakastea; izan ere, Katalunian ez bezala, Euskadin ez da inoiz tradizio politikorik egon... Euskal nazionalismoa asmakeria baten gainean eraiki da eremu sozio-politikoan”*.

Ezin dira garbiago agertu bi gauza batera:

- batetik, Frantziako eta Espainiako Estatuak bultzatzen duten historiaren desitxuratze interesduna, euskal desnazionalizazioa bultzatzeko (Euskal Historiarik badela ukatzeko eta, gainera, Euskal Herriko Historia nazionalismoaren historiarekin lotzeko, eta, horrela, aspaldi-aspaldiko Historia dela ezkutatzeko);

- eta, bestetik, historiaren zeregin nazionalitarioa, nazio-(berr)eraikuntzan nazio-kontzientzia sortzeko ezinbesteko tresna bilakatzen duena. Baita ere espainoltze- eta frantseste-prozesuak nola gauzatzen diren ulertzeko ere.

- Josep Fontanak historia ekonomikoko katedradunak horrela adierazten du *“Europa ante el espejo”* eta *“La historia de los hombres”* liburuetan: *“Europako historia erreala ezagutzeko, plurala eta mestizoa den europar komunitatea ezagutzeko, baztertu egin behar dugu, betiko baztertu ere, historiaren ibilbideari buruzko ikuspegi lineal hori, fase bakoitza aurrerapen bat gisa mekanikoki interpretatzen duen hori; haren orde, egin eta irakatsi behar dugun historiak gauza izan behar du .... ibilbide anitzen, bidegurutze askoren artikulazio korapilatsua aztertzen eta agertzen, non, askotan, ez zen ibilbide onena aukeratu gizon eta emakume gehienengizaterako, baizik eta konbentzitzeko eta inposatzeko gaitasuna eta indar errepresiboa zituzten taldeei komeni zitzaizena....”*

*Horretarako, ... progresoaren mitoari eta zientziaren kontzepzio deterministari mugak ezarri behar zaizkio et baita eurozentrismoari ere”.*

J. Fontanaren irakurketa historiko horren arabera, beraz, Espainia/Frantzia=zibilizazioa=progresoa eta Euskal Herria (edo Breñaña, edo Kortsika, etab.)=basatikeria=atzerakoikeria ekuazioak ez dira zuzenak, ezta gutxiagorik ere. “Bestea”ren gezurrezko irudia eraikitzen da, norberarena edertzeko eta “bestea”ren gutxiagotzea edo ezabatzea justifikatzeko: greziarrek eta erromatarrek “barbaroa” iraundu zuten bitartean, Frantziako eta Espainiako historiografiek “euskalduna”, sorgina, indiarra iraundu egin ditu.

Irakurketa historiko horren arabera, gainera, Europak eurozentrismotik horren harro inposatzen duen bere zibilizazioa ez da Grezia eta Erromarekin sortzen. Europaren historia eta zibilizazioa askoz ere antzinakoagoa da eta, horretan, Euskal Herriak zeregin garrantzitsua betetzen du. Oxford Unibertsitateko irakaslea den Stephen Oppenheimer-ek dioenez “Los senderos del Edén - Out of Eden. The Peopling of the World” liburuan, adibidez, azken aurkikuntza genetiko, arkeologiko eta klimatologikoen arabera, “Europako linea modernoan % 80 glaziazioa baino lehen zeudenen ondorengoak dira, eta horiek, Azken Glaziazio Maximoa gertatu zenean, hiru lekuetan babestu ziren, horietako bat Euskal Herria izan zen eta, handik, berriz ere, emigrazioak izan ziren. Beraz, Antzinako Europaren lehen zibilizazioguneekin Euskal Herriak badu zerikusia. Europaren historia ez da soilik ondoren Estatu-nazio bilakatu zirenen historia. Ezta, beraz, Nafarroaren Estatuarena bakarrik ere.

- “*Geroaldia ezin da aurretik jakin. Horrek esan nahi du gure geroaldia eraikitzeko gaitasuna dugula, nahiz eta zirkunstantziak ezin ditugun aukeratu*”. Indeterminazioaren printzipioa ere historiari dagokio. Eta historia, determinatua ez badago, zeregin askatzailea izan dezake, gure bizitzaren subjektu bilakatzen baikaitu. Teorikoki uler daiteke eta, beraz, transformatu daiteke. Historia guk egin dezakegu. Historiak, beraz, ikasle kritikoak, arduratsuak eta autonomoak hezteko balio du. Bestela ere, historia alienagarria izan daiteke (Industria Iraultzak ekarritako gaitzak “progresoaren” izenean, progresoaren kontzepzio mekanizista baten izenean, onartzea, adibidez, besterik gabe; edota, frankismoaren trantsizioa eta horren ondoren etorri ziren konstituzioa eta estatutua ez kuestionatzea, etab.) eta indarrean dagoen ordena politikoa eta soziala legitimatzeko balio dezake.

- “*Jakiteko nora goazen, non gauden jakin behar dugu eta, horretarako, nondik gatozen jakin behar da*”. (Ozeaniako atsotitz bat)... “*Haien iraganaldia ezagutzen ez duten gizakiek desabantaila bat badute eta honako hau da: haien orainaldia ere ezagutzeko gauza ez direla*.”. Memoria historikorik gabeko herririk eta naziorik ez dago eta, gainera, memoria kolektibo hori gabe, ez dugu gaitasunik egungo egoera sortu dituzten mekanismoak ulertzeko (XX. mendeko gerrak, Iraken inbasioa, desberdintasun sozialen edo globalizazioaren nondik norakoak, Nafarroan UPNk duen nagusitasuna, Ipar Euskal Herriaren euskara horren azkar galtzea edo Bilbo eta Donostiako burgesiak ez jakitea...) eta, beraz, historiaren akatsak errepikatzen lagundu dezakegu.

- Jose Manuel Odriozolak dioten bezala, bere “Hizkuntza, kultura eta gizarte” liburuan: “*Euskal kulturarik gabe euskarak ez dauka zer eginik. Ezta Euskal Herriak ere, herri hori euskal den bezainbatean... hori erakutsi du, era nabarmenean, ikastoletan eta eskola publikoetan sartu den sistema, erdararen funtzio hegemonikoak mantentzen dituen eskolagintza... Pentsamendu eta kultura espainola ez da bakarrik erdaraz ekoizten eta kontsumitzen; euskaraz ere... Erdal kultura elebakarraren monopoliopean erdietsi nahi izan dira euskararen ezagutza eta erabilera. Eta hori ezinezkoa da...*”. Herri bezala bere burua ezagutzeko eta besteek ere ezagutzeko irudiaren azpian dagoen oinarrizko substratoa bada kultura, oso larria da erdal ikusmolde eta balioak jaun eta jabe diren unibertso sinbolikoan euskara ikaste hori, historiako programan eta irakaskuntzan argi eta garbi islatzen dena. Izan ere, identitate-ezaugarriak historiak moldatzen ditu, zeren, Pierre Vilar historialari marxistak zioen moduan “naziotasuna iraupen luzeko fenomeno bat da, oinarri etnokultural iraunkorra daukana, behin eta berriro azaleratzeko joera duen antzinako iturburu duena”: gaur arte herri bezala bizirik irauteko historikoki garatu ditugun sistema komunitarioak, emakumeak bete izan duen eginkizuna, euskal genozidioaren kontrako erresistentzia egiteko moduak (paktuak barne), sinkretismoa, teknologia berriei egokitzeko gaitasuna, euskara klase xehe eta esplotatuen tresna izatea... Ohiko paradigma historikoak berpentsatu beharko genituzke, ikaslea, bereganatu eta landu behar dituen bere euskalduntasunaren aldeko argudioak eraikitzeko gauza izan dadin, bere esperientzietatik eta jakintzetatik abiatuta. Izan ere, norbere identitatea finkatuta izanda soilik, behar bezala gara daitezke gazteak gizarte multikultural, ireki eta demokratiko batean.

- Bestalde, “*kanpo-erasoek eta barne-klase aberatsen interes sozioekonomikoek eraginda sortzen diren barne-zatiketen arteko dialektika ulertzea inportantea da*”. Klase-borrokek historian duten garrantzia onartu gabe ezin da Euskal Herriko historia irakatsi: beti borroka egon da kapitala eta lanaren artean. Egun irakasten den historia, ordea, Espainiako eta Frantziako eranskin gisa irakasteaz gain (haiena omen da nazionalismo moderno eta gizalegezkoa; gurea etnikoa, zaharkitua eta arriskutsua da), eredu kapitalistatik irakasten da (Confebask-en

iritziak kontuan hartzen dira), eurozentrismotik eta patriarkalistentik (emakumea ezin ikusizkoa da eta ez da kontuan hartzen Estatuaren hegemonia ezartzeko, genero-harremanen berrantolatzea, euskal emakumeen kontrol fisiko eta sinbolikoa, ezinbesteko izan zitzaiela, euskaldunen bizitza sozial eta pribatua gero eta esku-hartze handiagoaz, lege, erreforma eta progresoen izenean).

Aro modernoko bi Estatu aurreburbagesen artean aurkitu zen Euskal Herria, zeinak esplotaziorako oinarriak antolatzen joan ziren, alegia, indar militarrek eta menderatzeko eta alienatzeko sistema kulturalak eta erlijiosoak. Eta, batez ere kapitalismoa garatzen joan zen heinean, kanpo- eta barne-interesek bat egin zuten, kanpo-indar errepresiboak erabiltzeko eta harreman aurrekapitalistak desagiteko (matxinaden errepresioa, adibidez); horrek suposatu zuen, jakina, kanpo- eta barne-klase horien interes ideologiko eta kultural antieuskaldunak ezartzea, espainola eta frantsesa eta horien kultura ezartzea.

- *“Historia, zientifikoa bada ere ez da neutroa, beste zientziak ez diren bezala”*. Historia, gainera, garaileek idatzi ohi dute. Euskal Herriko Historiari dagokiola, historia konparatiboa egin zatekeen, “bertsio” desberdinen arabera “emaitza” nola alda daitekeen ulertarazteko. Hona horren adibide batzuk: Gipuzkoa eta Araba, konkistatu al zuten ala Gaztelarekiko atxikimendua paktatu genuen? Nafarroa konkistatu eta txikitu al zuten ala “anexionatu” egin zuten? Foruak zer dira: frankizia eta pribilegioa ala euskal legeak? Kaparetasun orokorrak zer adierazlea da: igoalitarismoarena ala arrazismoarena? Karlismoa mugimendu dinastiko eta atzerakoia ala mugimendu askea eta herritarra? Nafarroak Lizarrako Estatututik kanpo geratzea erabaki al zuen ala ez? Batasunik egon al zen frankismoaren kontra ala batzuek bakarrik borrokatu zuten?

Nire iritziz, beraz, Euskal Herriko historia ikasgai bezala honako ezaugarri hauek beharko luke izan:

- identitarioa (memoria propioa, idiosincrasia komunitarioa eta indigena europarra garatzea; amnesia kolektibotik hainbat elementu berreskuratzea; 1936ko gerra, frankismoaren izugarrikeriak eta horiek ahaztu zituen trantsizioa, adibidez...)

- nazionala (beste kolektibitateekiko harremanak aztertzea; frantses eta espainiar ereduaren asimilazioaren nondik norakoak ikustea; euskararen eta euskal kulturaren eta Nafarroako euskaldutasunaren gainbeheraren zergatiak ulertzea; Espainiako eta Frantziako inperialismoa ikustea; historiaren faltsutzea Estatuak hegemonia ezartzeko; eskizofrenia-egoera batean bizitzeko ezintasuna (frantsesak frantsesak dira, espainolak espainolak, eta euskaldunak?))

- herritarra (zibikoa, igoalitarioa, antipatriarkala, anti-frankista, desberdina baina unibertsala eta mestizatze gai...)

- soziala (pertsonek eta taldeen arteko harremanak eta gizartearen barruan dagoen ondasunen banaketa; kanpoko eta barneko klase-borrokak; borrokak bidegabekerien kontra; bertakoen kolaborazionismoaren nondik norakoak; igoalitarismoa foruetan; balio kapitalistak vs balio solidarioak/sinergia historian...)

- askatzailea, eraikitzailea, integratzailea, irekia (ikasleen formazio integralerako pentsatua, egun dagoen irakaskuntzaren merkantilizazioatik at dagoena; konplexutasuna ulertzeko balio duena; eztabaidarako tresna dena; determinismoaren kontrako; zientziaren zer sozial eta historikoa eta progresoen mitifikazioa; aldaketa kualitatiboak -iraultzak- ulertzea...)

- eruditua (ikasleen ezagutza-, kontzeptualizazio- eta kultura-mailak hobetzeko pentsatua).

Akaso txikiak eta antzinakoak diren nazionalitateen kontzientzia izan daiteke irtenbiderik modernoena horrenbeste gerra eta sufrimendu eragin dituzten estatu zaharrak gainditzeko. Eta horretarako, aipatu berri ditudan elementuak zituzkeen Euskal Herriko historiaren iraskastea tresnetako bat izan zatekeen.